


ZER BERRI



Aizarnazabalen

MAIATZA 2024

www.aizarnazabal.eus

GAIAK

- 1- LAN ESKAINTZA
- 2- ERAIKINETAKO FATXADAK BIRGAITZEKO DIRULAGUNTZA
- 3- UDALEKUAK. MATRIKULA
- 4- KZ GUNEA
- 5- ELIZAKO BERRIAK
- 6- SAMIEL TXIKI EGUNEKO EGITARAUUA
- 7- EUSKARA ETA KULTURARTEKOTASUNA
- 8- ALAITSUKO DANTZARIEN EMANALDIA
- 9- BERTSO AFARIA
- 10- #GAZTEEGUNA24
- 11- INDA MENDI EGUNA

LAN ESKAINTZA

JARDINERITZAKO OFIZIAL BAT.

KONTRATAZIOA: Lanbidek eman duen diru laguntzaz baliatuz, Aizarnazabalgo Udalak, **Jardineritzako ofizial bat** kontratatuko du 12 hilabetez.

HAUTAGAIEN BALDINTZAK: Hautagaiak ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- * 16 urte baino gehiago eta 30 urte baino gazteagoa.
- * Lanbiden inskribatuta egotea.
- * Titulazioa: Goi- edo erdi-mailako heziketa-zikloak, batxilergoa.
- * Gidatzeko baimena.
- * Euskaraz mintzatzen jakitea baloratuko da.

LANPOSTU HONETARAKO ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA: 2024 maiatzean (6tik 17ra bihar barne). "LANBIDEREN BIDEZ".

AUKERAKETA NOLA EGINGO DEN: Langilearen aukeraketa LANBIDEK egingo du.

Informazio osoa: www.aizarnazabal.eus

UDALEKO ERAIKINEN GARBITZAILE BAT.

KONTRATAZIOA: Aizarnazabalgo Udalean, **Udaleko eraikinen garbitzaile baten** lanpostuan sortzen diren aldi baterako beharrak betetzeko **LAN POLTSA SORTUKO DA.**

ESKAERAK EGITEKO EPEA:

LANPOSTU HONETARAKO ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA: 2024 maiatzean (1etik 10era bihar barne). "LANBIDEREN BIDEZ".

AUKERAKETA NOLA EGINGO DEN: Langilearen aukeraketa LANBIDEK egingo du.

Informazio osoa: www.aizarnazabal.eus

ERAIKINETAKO FATXADAK BIRGAITZEKO DIRULAGUNTZA

Aizarnazabalen kokatuak dauden eraikinetako fatxadak birgaitzeko diru laguntzak onartu zituen 2024ko martxoaren 21ean Udaleko Osoko Bilkurak Oinarriak, 2024ko Apirilaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira.

BALDINTZAK:

- Eskabideak aurkezteko epea: 2024ko ekainaren 30a.
- Diru laguntza, kostuaren %25a izango da eta gehienez diru laguntza bakoitzeko 2.000 euroko kopurua izango da.

UDALEKUAK. MATRIKULA

Udaleko irekietan parte hartzeko matrikulazio epea zabalduko da maiatzaren 6tik 17ra bitarte.

Aurrematrikularekin egin bezela, oraingoan matrikula orria bete beharko duzue. Imprimakiak liburutegian egongo dira eskuragarri.

Bestalde, begirale moduan lan egin nahi duenak curriculumak bidali dezake mgabentura@gmail.com helbidera.

KZ GUNEA

Begiralearen bisita:

* Eguna /Ordua: 2024/05/24 09:00 - 13:00

* Hitzordua hartzeko: tutor.aizarnazabal@kzgunea.net edo, jarraian dagoen telefono zenbakira deitu dezakezue: 945 062 555.

ELIZAKO BERRIAK

- **Maiatzak 4 Gau ibilaldia Itziarrera.**
- **Maiatzak 5 Jaunartzeak.** Datorren igandean, eguerdiko 12:30etako elizkizunean herriko zazpi haurrek lehenengo jaunartzea jasoko dute.
- **Ekainak 1 Lurdesera erromesaldia.**

Bidaia + bazkaria: 65€

Irteera: Goizeko 05:45etan Aizarnazabaldik.

Izena ematea: Sakristian maiatzaren 26a arte.

Maiatzak 8

SAMIEL TXIKI EGUNeko EGITARAUa

17:00: Herriko umeen krossa, adinka sailkatuta.

Ondoren domina banatuko zaie parte hartzen duten umeei.

17:30: Meza

19:00: Dantzaldia Joxe Mendizabalen eskutik

Maiatzak 9

EUSKARA ETA KULTURARTEKOTASUNA

Arratsaldeko 17.30etan Mikel Elkartean elkartuko gara euskara eta kulturartekotasuna UEMArekin elkarlanean lantzen ari garen proiektuarekin jarraitzeko. Proiektuak herriko bizikidetzak sustatzea du helburu, euskara erdigunean jarriz. Interesa duen orok parte har dezake.



Maiatzak 10**ALAITSUKO DANTZARIEN EMANALDIA**

Alaitsuko dantzariak Samiel Txikitako emanaldia eskainiko dute 18:30etan herriko plazan.

Maiatzak 10**BERTSO AFARIA**

Bertsos afaria izango da maiatzaren 10ean 21:00etatik aurrera Mikel Elkartean.

- Bertsolariak: Iker Zubeldia eta Aitor Mendiluze
- Gai jartzailea: Aritz Hernandez (Larrume)

Sarrerak Uztarrin daude salgai (30€). Erosteke azken eguna maiatzaren 6a izango da.

Maiatzak 11**#GAZTEEGUNA24**

Adiskide Gazte Taldearen oharra:

Kaixo adiskideok!

Hemen da gazte eguna, beste behin. Maiatzaren 11rako, zapatua, egun osoko egitaraua prestatu dugu.

Urteroko moduan bazkaritarako sarrerak salgai dituzue dagoeneko.

Kuxkuxeatu gure sare sozialak ere, bertan topatuko duzue gure bihurrikerien inguruko informazio gehiago.

Herritar ugari pasa izan gara elkartetik urte hauetan zehar. Aurtengoa ere denon jaia izango da, beraz. Animatu eta gozatu gazte egunaren magia!

Maiatzak 29**INDA MENDI EGUNA**

Inda Mendi Eguna ospatzeko ibilaldia egingo da maiatzeko azken igandean.

Irteera: 09:00etan udaletxe aurretik.

OHARRA: Umeak heldu batekin joan beharko dute.